

# noaua

Larunbat honetan  
'Plazara' ateratzeko deia  
egin du Herrirak

Liburutrik ekimena  
jarri du martxan  
Hitz Ahok

Aste Kulturala Zubietan



Datorren astean irekiko da  
Udajolas-en izena emateko epea



# GARAIKO FRUTADENDA

ateak zabalik!

Eskaintza bereziak!!!  
prezio ezin hobekak!

Jatetxeentzat ere eskaerak onartzen dira!

943 84 03 62 BIZKARRE KALEA 1 (LURDES FRUTADENDA ZENA)

# Errazkin

bizikletak

- Bizikleta erakusketa zabala
- Bizikleta konponketa

## JAUNARTZERAKO BIZIKLETAK! OPARI BIKAINA!

Nagusia 5, USURBIL 943 57 63 79

# Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi [gertu@tokikom.com](mailto:gertu@tokikom.com) helbidera eta hitz egingo dugu!

**TOKIKOM**

TOKIKO  
KOMUNIKABIDEEN  
BATERAGUNEA

Hirinet.net	Aikor	Barren	28 kanala
Berton	Aikor.com	Elgoibarren.net	Karkara
Bilbo Hiria irratia	Anboto	Baleike	Karkara.com
Prest!	Anboto.org	Baleike.com	Txintzarri.info
Uk	Goiena Papera	Erlo telebista	Aiurri
Ukberri.net	Goiena.net	Uztarria	Aiurri.com
	Goiena telebista	Uztarria.com	Ttipi-ttapa
	Pil-pilean	Goierri telebista	Ttipi.net
	Plaentxia.com	Galtzaundi	Xaloe telebista
		Galtzaundi.com	Mailope
			Xorroxin irratia
			Guaixe
			Guaixe.net
			Beleixe irratia
			Euskal Herria irratia

## Albistea iruditan

# Gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak jasotzeko, hitzarmena sinatu dute

**H**itzarmena, Udalaren eta gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak jasoko dituzten eragileen artean izenpetu zuten astelehen eguerdian, Potxoenean bururiko ekitaldian. Urte honetan zehar egingo dituzten ekimenak laguntzera bideratua dago Udalaren egitasmo hau. "Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, 2012ko ekintzen justifikazioa eta 2013ko lan-egitasmoa hartu dira kontuan", berri eman dute Udaletik. Banatuko diren diru-laguntzen zenbatekoak, honakoak dira:

- **Herrira:** 879.56,00 euro.
- **DYA:** 3.316,82 euro.
- **Odol Emaileak:** 1.118,13 euro.
- **Usurbilen Nahi Ditugu:** 685,47 euro.



Astelehenean sinatu zen hitzarmena Potxoenean.

## Laburrean

### Aginagarren kinto bazkaria

Ekainaren 8rako, larunbata, kinto bazkaria antolatu dute 1963-66 urte artean jaio ziren aginagarrentzat. Otordua, Sekaño erretegian ospatuko da. Bazkaritara joan asmo duenak, alde zuretik izena eman behar du, 943 362 773 telefono zenbakira deituta.

### Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

Aurrekoan bezala, larunbat honetarako ere ate irekien eguna antolatu dute Lanbide Eskolan, goizeko 11:00etan hasita. Informazio gehiago eskuratu daitezke 943 364 600 telefono zenbakian, Interneten [lhusurbil.com](http://lhusurbil.com) helbidean edo e-posta bidez: [eskola@lhusurbil.com](mailto:eskola@lhusurbil.com)

### Maiatzaren 16an, Jose Maria Setienen hitzaldia

Donostiako elizbarrutiaren apezpikua izan zen, eta gaur egun apezpiku emeritua da. "Bakea, Justizia, Egia, etika edo politika?" hitzaldia eskainiko du Sutegin, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Ganbo Iturri Kultur Elkarteak antolatu du hitzaldia. Sarrera, doan.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaia.com](mailto:elkartea@noaia.com) /// [www.noaia.com](http://www.noaia.com)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Bea Alda,  
[publizitatea@noaia.com](mailto:publizitatea@noaia.com).

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
[erredakzioa@noaia.com](mailto:erredakzioa@noaia.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa  
Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





Maialen Unanue

## Badoa

**D**enbora zein azkar pasatzen den pentsatze hutsak beldurra sortzen du. Baldin eta, pasatzen den heinean, egingakoak eta egiteko utzitakoak alderatu, eta balantza egin gabe-koen alde okertzen bada. Alor pertsonalean, edo kolektiboan; berdin da. Begiratzen duzun lekutik begiratuta ere, badakigu nora goazen?

Ados, zenbait gauzek denbora behar dute, ez dira bat batean aldatzen. Eta pentsa dezakezu ezin dugula ezer egin. Edo zer egingo diogu ba, ez badago gure esku. Baina ez nago hain ziur hori hala denik.

Asko aspertzen naute borroka dialektikoan murgiltzen diren eta euren eguneroko jarduna eztabaida antzuetan galtzen duten politikariek. Asko aspertzen naute, inoiz birziklatu ez, eta bat bate-

an, inolako oinarririk gabeko bozketak bultzatzen dituztenek. Asko aspertzen naute, baita ere, gainontzekoen jardunean akatsak ikusi, eta norberarenak aitortzeko gaitasunik ez dutenek. Asmatu zenbat aspertzen nauten euren munduaren ikuskeran besterik ez dagoela pentsatzen dutenek.

Eta aspertu bakarrik ez. Nekatu ere egiten naute. "Atzera goaz aurrera ez bagoaz" abesten du Berri Txarrakek. Hori da arriskua: denborak aurrera egiten duen bitartean, gu geldirik geratzea. Are okerragoa ere izan daiteke: geldirik geratu eta ez konturatzea.

Maiz iruditzen zait dena antzerkia dela, eta gu aktoreak. Eta, gure artean gera dadila, zer pentsatua ematen du operazio polizial bat dagoen bakoitzean kameraren bat grabatzen egoteak. Hala, ez dugu detailerik galtzen. Antzerki guz-

tietan daude protagonistak eta bigarren mailako aktoreak: bakoitzak jakin dezala zein den bere papera. Baina guztiaren gainetik, denok dugu zerbaiteko, guztion lana da garrantzitsua.

Baina ez gaitzen engaina, errazena paso egitea da. Erosoena. Ez da aukera txarra: kexatzeko arrazoiak izan arren, baldintza minimo batzuek bere horretan dirauten bitartean, aurrera. Berdin dio. Galdu ditzagun gure aurrekoek irabazitako lorpen guztiak. Utzi diezaiegun adierazpen askatasuna oztopatzen. Utzi dezagun nahi dutena egin dezaten: guk ez dugu begiratu, eta kasualitatez, ezer entzungo bagenu, ezer pasako ez balitz bezala egin dezakegu. Pasa gaitzen aktore izatetik txotxongilo izatera. Esklabo izan gaitzke, goitik datorren guztiari men egiten hasi.

Gero gure seme alabei esango diegu guk izan genuela goi mailako ikasketak egiteko aukera, baina tira, gero arazo batzuk tarteko dena konplikatu zela, eta orain gutxi batzuen esku dagoen pribilegioa dela. Esango diegu presentzia poliziala herritarren segurtasunerako tresnarik eraginkorra dela, eta garai batean uste zenaren kontra, ez dela herritarren kontrolerako arma.

Baina, besterik gabe, burura etortzen zaizkidan ideiak dira horiek. Esaten dute denborak bakoitza bere lekuan jartzen duela. Indar ikusezin batek justizia egingo balu bezala. Norberaren esfortzurik gabe hori posible izango balitz bezala. Baina, berriro diot: burura etortzen zaizkidan ideiak bakarrik dira. Utzi dezagun denborak bere bidea egin dezan.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

### Ika-Mika

## Ez dezatela esan borrokkak ez duenik balio

**K**einu batek ezer alda ezezake-lazioten. Gauzak diren modukoak direla, ezin daitezke iraui, halakoa dela euren egoera "naturala". Beltzek ezin zurien alboan jesarri. Gose direnak ezin soberan duenarena dena uki. Gazteak ezin amestu. Determinazioz eginiko hautu batek ordea aldaketa ekarriko duen mugimendua piztu dezake. Autobuseko eserlekutik ez altxatzea erabaki zuen Rora Parks-ek eta arrazagatiko bereizkeriarekin bukatuko zuen mugimendua gorpuztu zen

atzetik. Supermerkatuan ostutako janaria behar zutenei banatzea erabaki zuten SATeko kideek. Supermerkatuan ostutako oinarriko elikagaiak beharra zutenen artean banatzean sistema kapitalista ankerraren aurpegia erakutsi ziguten. Gazteak kartzelaratzeko kostako zitziela irmoki esan eta herri harresiaren lehen harria jarri genuen Donostian. Borrokkak ez duela ezertarako balio esaten digute behin eta berriz geldirik nahi gaituztenak. Gu zapaltzen jarraitze-ko geldirik nahi gaituztenak. Baina

gure borrokoek sumiso nahi bagaituzte ez al da mugitzea zentzuzkoena? Keinu batekin hasten da dena.

Maiatzaren lehena igaro da eta hile amaieran sindikatu eta eragile sozialek deitutako Greba Orokorren txanda izango da. Baina gure ahaleginak egun huts horietara soilik bideratzen baditugu, alferrik gabiltza. Maiatzaren 2an ere 1ean bezain beste dugu eraikitze. Borroka alferrikakoa dela diotenei, borroka alferrikakoa dela (sin)etsita bizi direnei, nahasiak daudela erakutsiko diegu.

Elkarrekin antolatuz, eskuz esku borrokatuz, erabakiak determinazioz hartu eta garatuz, aldetari ekingo diogu. Gauzak ez dira diren moduak izatez, bizi erdua eraiki egiten da. Noren esku utziko dugu eraikuntza? Miseriarantz garamatzatenen esku ala gutako bakoitzaren esku? Izan gaitzen osotasunean geure bizitzen jabe.

Has gaitzen bada keinu batekin!!!  
#KEINUBAT

Usurbilgo Ernai

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAIk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo balioakidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: maiatzak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 20.

# Gidabaimena euskaraz eskuratzeko gonbita



Diru-sariak banatuko dira euskararen aldeko hautua egiten dutenen artean.

**B**uruntzaldeko hainbat auto eskoletan, gidabaimena eskuratzeko azterketa teorikoa euskaraz prestatu, azterketa hizkuntza berean egin eta gainditzen dutenak sari-tu asmo dituzte aurten ere. "Gidabaimena euskaraz" kanpainaren bueltan bildu dira beste behin, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak eta udal-erriotako hainbat auto-eskola. Alor honetan ere euskararen erabilera suspertu nahi dute, apustu honen alde egiten dutenen ahalegina sarituz.

Egitasmo honen sustatzaileek hautatu duten aldarriak ere halaxe dio: "Dakizuna erabili ez dakizuna ikasteko". Urte honetan zehar, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gaintzen duten herritarren artean, datorren urteko, 2014ko urtarrilean atal teorikoa ordaintzeko diru sariak zozketatuko dira. 11 sari emango dira guztira; Andoainen 2, Astigarragan 1, Hernanin 3, Lasarte-Orian 3, Urnietan 1, eta Usurbilen 1. Sari bakoitza gehienez 400 eurokoa izango da.

Egitasmo honetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da Buruntzaldeko herriren batean erroldatuta egotea; gidabaimenaren atal teorikoa 2013 urte honetan zehar gaintzea;

eta inprimakia beteta entregatzea egitasmo honen lankidetzan diharduten autoeskoletan.

Hauke dira, kanpaina honetan parte hartzen ari diren auto eskolak:

## Andoainen

- Bengoetxea: Juan Bautista Erro 9, 943 594 406.
- Mendi: Agustin de Leitza 11, 943 300 604.

## Hernanin

- Hernani: Latsunbe 3 (943 550 534), Urbieta 7 (943 553 416).
- Lagunak: Karobieta 1, 943 331 419.
- Otamendi: Izpizua 1, 943 553 545.

## Lasarte-Orian

- Izarra: Geltoki 11, 943 377 005.
- Lasarte: Nagusia 5, 943 370 692.
- Mugica: Ganbo 1, 943 362 275.

## Urnietan

- Solozabal: Idiazabal 24-1C, 607 616 416.

## Usurbilen

- Solozabal: Irazu 2, 943 376 936.

Informazio gehiago: [www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)

## Udako txokoak antolatu ditu Antxomolantxak Aginagan

Ekaineko azken astean eta iraileko lehen astean, udako txokoak antolatuko ditu Antxomolantxak Aginagan.

**Ekainaren 24tik 28ra bitartean**, goizeko 10:00etatik 13:00era egongo da martxan. Antxomolantxa elkarteko bazkide direnek, haur bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko dute. Bazkide ez direnek, 20 euro. Izena emateko azken eguna ekainaren 5a izango da. Izena emateko, deitu telefono zenbaki honetara: 637 332 402.

**Irailaren 2tik 6ra bitartean**, goizeko 10:00etatik 13:00era egongo da martxan. Antxomolantxa elkarteko bazkide direnek, haur bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko dute. Bazkide ez direnek, 20 euro. Kasu honetan ere, izena emateko epea ekainaren 5ean amaituko da.

Izena emateko, deitu telefono zenbaki honetara: 637 332 402.

## Uztaileko txokoak Aginagan, San Praixku Guraso Elkarateak deituta

Uztailean ere, Udako Txokoak antolatuko dira Aginagan. San Praixku Guraso Elkarateak aditza eman duenez, **uztailaren 1ean hasi eta uztailaren 30a** arte luza-tuko da. Hilabete osorako edo hilabete erdirako eman daiteke izena. Aginagako eskolan diren ikasleentzat, kuota hauxe izango da. Hilabete osoa, 55 euro. Hilabete erdia, 30 euro.

Aginagako Eskolan ibiltzen ez diren ikasleentzat, hilabete osoko kuota 90 euro. Hilabete erdia, 55.

Kasu honetan, ekainaren 14an amaituko da izena emateko epea.

Inskripziorako edo informazio gehiago jasotzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 637 332 402.



## ANOAGA TXIBI S.L.

### KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com



## KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Sagardo Egunaren bezperan

**H**emen gara berriz ere maiatza bete betean sartuta. Paisaia dotore-dotore janzten da hil honetan, loreak kolore eder-erak emanaz inguruari eta sagastia bete betean beren fruitu desiratua era goxo goxoan azaleratzen. Fruitu hauxe da gainera Usurbilgo festa desiratuaren oinarri bai, 2013ko Sagardo Eguna ate joka dugu jada. Denok adi-adi eguraldiari begira, ia zer aurreikusten duten ba festa borobil borobila irten dadin. Maiatzaren 19an aurtengoan, zuzen zuzen urtero bezala, maiatzaren hirugarren igandea. Ohiturari jarraituz, ekitaldi desberdinak izango dira eguerdira bitartean, baina aurtengo berezitasuna aurretik hainbat ekintza antolatzearena izan da. Maiatzaren 18an, bezperan, arratsaldeko 5etan, Sariaaundi baserrira bisita, "Sagastia loretan" ospakizunaren baitan.

Ez dago aitzakiarik, batetik ez bada bestetik badago non zer ospatua!! Usurbildarrok ederki dakigu hori eta!!! Ondo pasa usurbildar guztioi, eta kanpotik datozenak ongi etorriak izango dira. Txotxean ikusiko gara!!! Gogoratu egun hau baliatu dezakegula, Atez Ateko mugimendua bizi bizirik gure barnean dugula erakusteko!!! Birzikla dezagun, ederki egiten dakigun bezala!!! Gora usurbildarrak eta gora Sagardo Eguna!!! Ondo izan. Hurren arte.



## SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Ibilbideak

**A**ze mugimendua ikusten den egun hauetan gure auzoan. Zubia pasa eta bidegurutzean jartzen bagara, mota, adin eta era guztietako jendea ikus dezakegu auzotik igarotzen. Egia esan, oso toki onean gaude kokatuta. Gora abiatuz gero, Urdaiaga aldera, bizikletaz edo oinez ibilbide politak eta lasaiak dauzkagu orain ederra dagoen mendiaz gozatzeko. Sagarrondoak loretan, belardiak lorez apainduak edota eguzkia lasai hartzeko txoko baketsuak.

Txokoaldera doan bidea ere autorik gabeko bide-gorri antzeko zerbaitean bihurtu zaigu. Aldaparik gabekoa, korrika edo paseatzeko proposa eta gainera orain, neguko lozorroaz berpizten ari den gure erriberraren paisaia ikusteko aukera ederra. Dagoeneko baratzak hasi dira landarez betetzen eta piperrak berde kolorez margotzen, erribera gehiena.

Zubietako bidea berriz, klasiko bat da. Nahiz eta ordu batzuetan A-8 autopistaren itxura hartu, aukera asko ematen digu ere. Zubietaraino edo Lasarteraino distantzia politak dauzkagu, gehiegi nekatu gabe eta bertan deskantsatu eta lasai bueltatzeko. Auzoa berritu zenetik jende askok egiten du kontrako bidea orain. Lasartetik, asteburuetan batez ere, bizikletan edo oinez etortzen dira Santueneraino, gure parke, frontoi eta eskubaloi zelaia aprobetxatuz. Aukera politak beraz, gure auzotik abiatuta. Besterik gabe, eta txirindulariei semaforoa errespetatzeko esanez agurtzen naiz.



## ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Tonucci eta Zubietta

**F**rancesco Tonucci psikopedagogo eta pentsalari italiarra Gipuzkoan izan da eta eskola ereduaren eta haurrei begirako hirigintzaren inguruko ideia berritzaileekin gure gizartean ohikoak diren pentsamoldeak irauli nahi izan ditu. Bere aipu pare bat: «Arratsaldeko orduak ez dira eskolarenak, haurrenak izan behar dute. Etxeko lanak kaltegarri dira; eskolatik kanpoko orduetan kalera atera behar dute, lagunekin jolastu eta abenturak bizi»; «Mugitu, korri egin, zikindu eta borrokatzeko beharra dute haurrek. Etxetik bakarrik ateratzeko aukera izan beharko lukete, baina egungo hiriekin ez da posible. Hiriak gizon langileen eta autoen mesedetan eraiki dituzte. Haurrekin, emakumeekin, elbarriekin eta adinekoekin ahaztu dira hiriak». Haurren iritzia aintzat hartzeari garrantzi handia ematen dio Tonuccik eta espazio publikoa berreskuratzeko beharra aldarrikatzen du.

Gure eskola txikiaren hezkuntza ereduari eta Zubietako belazeei eta erdiguneko oinezkoentzako eremu handiari esker, gure haurren herria ez dabil Tonucciren herri eruditik oso aparte. Dena den, badira hobetzeko arloak: gure inguruko makroikastolen gehiegizko etxeko lanetarako joera, Usurbilerako bidegorriarik eza, autobus publikoen ordutegia eskolakoekin bat ez etortzea... Zer hobetua badago baina agian haurrek eurek esango digute nola, ezta?



## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Sevilla eta "oleeeee"

**S**evillan, apirilaren 15etik 21era ospatu da, hain famatua den "Feria de Abril" deituriko festa. Eta nola ez, Aginaga eta Usurbilgo ordezkariak ere hantxe izan dugu. Bertan ibili dira "manzanilla"k edanez eta urdaiazpiko goxoa dastatuaz aurrera eta atzera. Argazkian agertzen zaizkizue gure bi herrietako "neska gazteak" giro ezin hobean. Lagun ederrak egin omen dituzte Andaluzia aldean, beraiek hori aipatu digute, beraz, hurrengo urtean animatu Sevilla aldera joatera.





# Olatu Talkak Artzabal eta Zubietan zipriztinduko ditu aurten

**M**aiatzaren 24, 25 eta 26an ospatuko da 2013ko Olatu Talka. Egitasmo honen bidez, besteak beste, "Donostia 2016ren baliok" hedatu nahi dituzte antolatzaileek.

Olatu Talkaren laugarren edizio honetarako 150 ekitalditik gora programatu dituzte, tartean, Donostiaren bigarren mendeurrenari loturiko bi ekimen; "Errautsak bihotzean" ikuskizuna eta Zubietan Donostiarekin lotuko duen "Ziklobia". Azken ekimen hau hain zuzen, maiatzaren 26rako (igandea) antolatu dute, 10:00-16:00 artean. Euskal Herriko Unibertsitatearen Ibaetako kanpusetik hasi eta Zubietaraino doan errepidea itxi egingo dute autoentzat, N-1 errepidea alegia, aipatu egun horretako ordu tarte horretan. Egunero autoak ibili ohi diren bide honetan, oinez ibili ahal izango da, patinekin, bizikletan... Eta ez hori bakarrik. Bidean, musika, dantza, tailer, ipuin kontaketa eta abarreko 35 kultur ekintzez gozatu ahal izango da, guneotan: Zubietan bertan, Añorgan, Ibaetan eta baita Grosen ere.

Bezperarako, hau da, maiatzaren 25erako Oria ibaia gar-



Olatu Talka kanpainaren baitan antolatu da Ziklobia. N-1 errepidea itxi egingo dute eta patinetan, oinez, bizikletan ibiltzeko aukera izango da.

bitzeko ekitaldia antolatu dute Zubietan. Goizeko 10:30etan hasiko da auzolanean eta jai giroan burutuko den ekimen hau, hamaiketako eta bertso saio eta guzti. Eta Usurbilen bertan, Artzabalen, *Talka!ve* zuzeneko musika zirkuituaren baitan, Azkaiter Pelox Band taldearen emanaldia iragarri dute egun berean, 20:00etatik aurrera.

## MAIATZAK 26 IGANDEA

- 10:00-12:30 Euskal Ligako Errebote Partida: Zubietan eta Senpere lehan.
- 10:30 Historia origamiaren bidez. Mari Joxe Azurtzak tolestutako paperekin egindako irudiak.
- 10:30 Euskal ikurrak, irudiak

eta grafia tailerra. Edorta Murua. 8-14 urte bitartekoentzat tailerra.

- 10:30 Apaindu danborra jo baino lehen. Birziklatutako materialarekin danborrak egiteko tailerra, 4-12 urteko umeentzat.
- 11:00 Kultur hiriburuaren eskusoinuak Zubietako Plazan.
- 11:00-14:00 Eguzki-hamaiketakoa.
- 12:30-13:30 Pilota-Joko tradizionalak.
- 12:45 Kontrapas. Garzarrak. Eszena gainean 23 dantzari eta 6 musikari arituko dira.
- 13:30 Konparts-eroak. Donostiako konpartsak.

Antolatzailea: Olatu Talka.

# Oria ibaia garbitzeko deialdia

**O**latu Talkaren bezperan, Oria ibaia garbitzeko hitzordua ipini du Urgarden elkarteak. Maiatzaren 25ean larunbata, goizeko 10:30ean elkartuko dira. Zubietako ibaiartzaren garbiketa lanetan edonork har dezake parte. Irekia dela deia. Hauxe da Zubietako Herri Batzarretik iritsi zaigun oharra.

## MAIATZAK 25, LARUNBATA

- 10:30 Goazen guztiok Zubietara Oria ibaia garbitzera. Urgarden elkarteak bultzatutako ekimen parte-hartzaile honetan Oriaren Zubietako ibaiartzaren garbituko dute.
- 12:00 Bertso Saioa. Gai nagusia ibai-garbiketarik ateratako zaborra.
- Ondoren hamaiketakoa, Joko Garbi elkartearen egina.



Goiz partean arituko dira garbitzen.

## Datorren astean, Aste Kulturala Zubietan

Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak prest du, aurtengo Aste Kulturalerako egitaraua. Honatx, datorren maiatzaren 20tik 24ra, Zubietako frontoian burutuko diren ekitaldiak:

### Maiatzak 20, astelehena

- 17:00 Tailerrak frontoian: esku-muturrak, txapak, kareta...

### Maiatzak 21, asteartea

- 17:00 Frontoian: herri kirolak. Altxor bilaketa.

### Maiatzak 22, asteazkena

- 17:00 Frontoian: jolas ludikoak eta apar jolasak.

### Maiatzak 23, osteguna

- 17:00 Puzgarriak eta giza mahai futbola frontoian.



### Maiatzak 24, ostirala

- 17:00 Frontoian: musika eta antzerki emanaldia. Txiki disko eta karaokea.
- Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.

## Zubietako Txokoetan izena emateko garaia

3-11 urte artekoek zuzendutako txokoak antolatu dituzte, uztaila eta abuzturako Zubietan. Izen emate orriak Barazar Tabernan eskuratu daitezke. Udaletxeko postontzian utzi behar dira, maiatzaren 20a baino lehen. Informazio gehiagorako: 618 700 479 (Izaskun) edo 636 719 301 (Josune).

# Leitzarango turismo gunea, eskualdeko udalen finantziazioarekin

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak Buruntzaldea aukeratu zuen naturan oinarritutako turismoari bultzada eman go diola iragartzeko. Jon Peli Uriguen Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko diputatuak eta Gipuzkoako herri askotatik etorritako alkateek agerraldia egin zuten Leitzarango bisitarien etxean. Aurkezpen hori baliatuz, Buruntzaldeko udalek elkarrekin abian jarri duten turismo aktiboari buruzko gunea aurkeztu zuten.

Buruntzaldeko udalek maiatzaren 9ko agerraldia Foru Aldundiari egitasmo berria aurkezteko aukera baliatu zuten. Eskualde mailako garapen agentziaren bitartez, turismoari bultzada ematea erabaki dute eta dagoeneko egitasmo zehatza martxan jarri dute: Leitzarango turismo aktiboaren gunea.

## LANPOSTUAK SORTU DITU

Ana Carrere Andoaingo alkateak eman zituen argibideak, eskualdeko udal ordezkariaren izenean: "Leitzarano haranean sei hilabetez egitasmo berri bat gauzatu dugu, Lanbidek sustatu duen Enplegu plana baliatuz. Natura eta lana uzartuz, gazteen formakuntzan sakondu eta turismoa sustatzen ahaleginduko gara". Dagoeneko langabezian dagoen



Egitasmoaren eragileak eta hainbat udal ordezkari, aurkezpen ekitaldian.

## SEI LANPOSTU BERRI

**"Turismo aktiboa deitzen dioten eremu horretan, kirol jarduera ezberdinak eskaintzen ari dira Leitzaranoan"**

gazte talde bati formakuntza eta lana eskaintzen zaie, eta era berean turistek naturagunean kirol jarduerak egiteko aukera izango dute. Egitasmoa Ur enpresari esleitu diote, Lanbidek eta Buruntzaldeko sei udalek finantzatu dutena, hots, Usurbil, Lasarte-Oria, Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Andoainek.

Turismo aktiboa deitzen dioten eremu horretan, kirol jarduera ezberdinak eskaintzen ari dira naturagune ederrean. Besteak beste, dagoeneko bizikletan ibilbideak eskaintzen dituzte eta nahi izate aldera gida batek lagundutako irteerak antolatuta daitez-

ke ere. Eskualdeko informazio zabala eskuragarri ipini dute bertara hurbiltzen diren turistei begira.

Urdaibain edota Piriniotan naturari eta kirolari loturiko egitasmoez arduratzen den Ur enpresak Andoaingo aurkezpenean adierazi zuenez, etorkizun hurbilean urarekin loturiko jarduerak eskaintzea ere ez dute baztertzen, hala nola, erreka jaisierak piraguan egitea.

## Informazioa

943 300 929  
info@leitzarano.org  
Bizikleta alokairua  
www.leitzarano.org  
www.ur2000.com

## Kokapena

**Leitzarano Bisitarien Etxea**  
Otieta Parkea  
Leizotz auzoa, 48 behea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
N 43° 12' 12.5" - W 2° 0' 34.2"


## Naturan oinarritutako turismoari bultzada

Jon Peli Uriguen Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza Landa Garapen eta Turismoko diputatuak, Gipuzkoako hamar turismo agentzietako ordezkariekin eta Donostia Turismorekin batera, gure lurraldean turismoa bultzatzeko ematen ari diren pauso berriak aurkeztu zituen Andoaingo Leitzarango Parkean, "Gipuzkoako hamar eskualdeak, Donostia Turismoa eta Foru Aldundia gaude. Denok ari gara elkarrekin lanean, mahai berean, Gipuzkoako Turismo Mahaian, hain zuten. Eta proiektuak eta ekimenak partekatzen ditugu. Aldundiak aurtun 420.000 euro bideratu ditu eskualde turismoko agentzietara eta Donostia Turismoaren sustapenera. Gipuzkoan instituzio ezberdinetako ordezkariak turismoa sustatzeko garaian naturari garrantzia emateko erabakia hartu dugu. Gastronomia beti izan da garrantzitsua Gipuzkoan, baina naturaguneak behar bezala aprobetxatzen jakiteak gure ondarea indarrean jartzea ekarriko digu. Gipuzkoan naturagune ikusgarri ugari ditugu eta hori ezagutarazten asmatu behar dugu, gipuzkoarrendik hasita.

Mendi garaiak ez ditugu behar bada, baina baliabide aberatsa dugu beste moduko turismoa bilatzen duen turistarentzat. Berlineko azoka batean sari bat eman ziguten, eta han ikusi genuen natur turismoa mundu mailan gorantz doala. Horri indarra ematea gure lehentasunetakoa izango da".

Diputatuak bere adierazpenean keinu bat egin zien Buruntzaldeko udalei, "elkarlanaren ondorio da hemen aurkeztu dena".

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L

 teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

**USURBIL AUTOAK**

·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTKEEN SALTAMTA



**SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

 943 36 10 79



# BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



# Mundumob-ek jarri ditu dantzan

**D**ema plaza adin desberdinetako herritarrez bete zen larunbatean. Denak ere dantzan egoki moldatzen direla erakutsi zuten. Euren ahaleginak gainera, badu bestelako meriturik ere, dantzatzuz, guk jasotako mundua, datozen belaunaldiek ere aukera berdinekin jaso ahal izatea aldarrikatu baitzuten.

"Eman hartu nahi duzun mundua" lemapean ospatu zen maiatzaren 11n, Gipuzkoako hainbat udalerrietan barrena dabilen Mundumob ekimena. Haiek ere dantzan aritu ostean, Lasarte-Oriako bizilagunen eskutik jaso zuten ekimen honen irudi bihurtu den mundu bola, herriz herri dabilen lekukoa, eta Dema plazako oholtza gaineko lehen lerroan kokatu zuten, herritarren txalo artean. Ongi etorri honekin hasi zen, dantza saioaren aurretik burutu zen ekitaldia.

## "EREDU ON BAT EMATEN ARI GARA"

Adierazpenen txanda gero. Ekimen honen helburua zein zen gogorarazi zuten, Usurbil Zero Zabor (UZZ) taldeko ordezkariak. "Helburua, herritarrok aldarrikapen nagusi baten inguruan biltzea da. Guztiok daukagun mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea. Eta ondorioz, guztiok daukagu mundua hurrengo belaunaldiei guk jaso dugun aukera berdinekin uzteko betebeharra. Iraunkortasunaren aldeko aldarrikapena da azken finean egiten duguna. Ideia hori lelo nagusian laburtu dugu. Eman hartu nahi duzun mundua. Asmo horri erantzuten, aitzindariak izan ginen usurbildarrak Euskal Herrian hiri hondakinak modu ardurasuan gaika biltzeko ireki ge-



Gazte eta heldu, Mundumob grabatu zen unean.

## HURRENA, DONOSTIAN

### "Ekainaren 8an Mundumob erraldoia grabatuko da Donostian"

nuen lerroan. Gure amon aitonek erein eta zaindutako ingurualdi eder bat daukagu. Maite dugu gure herria. Eta

gure ondorengoek ere maite dezaten eta ez hondatzea da gure eginkizuna, azken finean gure ardura. Eta pozik gaude, alai, umorez pertsona hobeak gara, elkarri lagunduz. Elkarrekin lorpen handiak egi bihurtzen direla sinetsita baikaude. Egin duguna, egiten ari garena izugarria da. Herri txikia izan arren, lortu dugu

ingurumenaz gehiago kezkatzea Gipuzkoa osoa. Asko begiraten digute usurbildarroi, eredu on bat ematen ari gara. Eta mezu hori hedatzen lagunduko digu joan zen asteburuan Orendainen abiatu eta Gipuzkoan zehar dabilen Mundumob kanpainak. Gaur Usurbilen dugu", adierazi zuten UZZ-tik.

## "Aldarrikatzen dugun etorkizun hobeagoaren isla da Mundumob ekimena"

**E**kimena jende askoren laguntzaz gauzatu dela gogorarazi eta txalotu zuten antolatzaille zein herritarrek. Parte hartzailea izan dela, iazko Donostiako mosaiko erraldoiaren gertatu moduan, baita 2011n Zubietako flashmob ekimena egin zenean bezala. "Aldarrikatzen dugun baikortasuna eta konpromisoa daude ekimenaren muinean. Aldarrikatzen dugun etorkizun hobeagoaren isla da ekimena, giro alai eta parte hartzaileekin burutuko duguna. Ezin dugu mundua neurririk gabe hondatzen eta kutsatzen segi. Natura erabiltzen ikasi behar dugu. Natura hondatu gabe. Biharkoan ere bizia izan dadin, gaurkoan hazia ereiten jarraituko dugu. Eman hartu nahi duzun mun-

dua", aldarrikatu zuten oholtza gainetik, bertaraturiko herritarren txalo artean.

### Dantza egin ondoren, askaria

Adierazpenen ostean, eta ekitaldian zehar, belaunaldi desberdinetako herritarrek bildu eta Gipuzkoako maparen irudia zuen puzzlean Usurbilgo pieza kokatu ostean, iritsi zen unea. Aurreko asteetan, eta larunbat arratsaldean, Ana Urdangarin eta Izadi Azkonobieta herritarren laguntzarekin prestatutako dantza saioa egin zen. Pare bat aldiz. Bigarren saioan gainera erronka berri batekin; herritarrek eskuetan ontzi arinak zituztela dantza egin zuten. Eta dantza saioaren ostean, merezitako askaria. Zizka-mizkek eta Dj

Albertok girotu zuten arratsaldea.

### Donostiara begira orain

Lasarte-Oria, Astigarraga, Pasaia, Legazpi, Mutriku, Azpeitia, Zarautz, Getaria, Tolosa, Beasain, Elgeta, Soraluze, Amasa-Villabona... Orendainen abiatutako Mundumob ekimena udalerriz guztietan, eta gehiagotan ere ospatuko da asteotan. Usurbildarrek, gainerako gipuzkoarrek bezala, beste hitzordu bat dute eta; ekainaren 8an, Donostian amaituko da Mundumob eta hara joateko gonbita ere luzatu zuten larunbatean. Gipuzkoa mailako amaiera ekitaldia izango da hiriburukoa. Donostian ere dantzan aritzeko, entsegu saio gehiago deitzeak dira datozen asteotan.



# Udajolas-en izena emateko garaia

UZTAILAREN 3TIK 30ERA BITARTEAN EGINGO DA AURTEN, ORDUTEGI HONEKIN: GOIZEZ 9:30-13:30



4 eta 12 urteko haurrek eman dezakete izena Udajolasen.

**H**asi dira galdezka gurasoak. Eta dagoeneko badugu erantzuna: Udajolasen parte hartu nahi duten

guztien izena eman ahal izango dute maiatzaren 21etik 27ra, NOAUA!-ko egoitzan. Izena emateko sistema iazkoaren berbera izango da. Epe hori igaro

ondoren, 130 haur baino gehiago apuntatuta egongo balira, plazen zozketa burutuko litzateke maiatzaren 27an astelehena, arratsaldeko 18:30ean

Potxoenean. Kasu horretan, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda NOAUA!ko bulegoan ipiniko litzateke. Iaz ez zen zozketa egin behar izan.

## Maiatzaren 21ean irekiko da izena emateko epea eta NOAUA!ko bulegoetara etorri beharko da

### 4-12 URTEKOENTZAT

Usurbilen erroladatutako 4-12 urte (HH3 - LH6) bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago.

### MATRIKULATZEKO

Gutxienez, lau urte beteak izan beharko dituzte (edo 2013. urtean zehar beteko dituzte) eta gehienez, berriz, 12 urte. Hau da, 2012/13 ikasurtean Haur Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. maila arte egin dutenek eman dezakete izena.

### UZTAILAK 3-30

Udajolas 2013ko uztailaren 3tik 30era bitartean egingo da, ordutegi honekin: 9:30-13:30 (goizez).

### PLAZA KOPURUA: 130

Udajolasen gehienez ere 130 ume hartu beharko lirateke (behar berezia dutenak ez daude kopuru honetan sartuta). 130 ume baino gehiago apuntatuko balira, zozketa egingo litzateke maiatzaren 27an, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean eta ondoren onartu eta baztertuen

zerrenda NOAUA!ko bulegoan jarriko litzateke.

### MAIATZAREN 21EAN IREKI ETA 27AN ITXIKO DA IZEN-EMATEA

Izen-emateko epea: maiatzaren 21etik 27ra (biak barne), 10:00-11:00 eta 16:00etatik 18:00etara, NOAUA!ko bulegoan. Izen ematerakoan, izen-emate orria ekarri behar da (Udarregin banatuko zaie bertako ikasleei izen-emate orria).

Behin plaza ziurtatuta dagoene-

an, ekainaren 4a baino lehenago egingo da diru-sarrera. Data hori pasata egiten diren ordainketak ez dira onartuko eta plaza galduko da. Ordainagiriaren kopia NOAUA!ra eramane behar da.

Ordainketa Euskadiko Kutxako kontu honetan egin, bertan haurraren izen-abizenak adieraziz: 3035 0140 34 140 0 02581 1

### KUOTAK

Kuota: 79 euro. Familia ugaria: 63 euro (txartelaren kopia ekarri).



WWW.HERRIRA.ORG



# M18 PLAZARA

LAINOA NAHINORA DOA, BAINA GU HERRIRA GOAZ

## USURBILEN 12tan DEMA PLAZAN


(al bada kamista urdinekin azaldu)



maiatzak

18

**GIZA ESKUBIDEAK. IRTENBIDEA. BAKEA.**  
EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA





# Udarregi Ikastolako HHko ikuskizuna

**E**kainaren 2an ospatuko da aurtengo Ikastola Eguna. Egun osoko jaialdia iragarri dute. Goizean, LH eta DBHko ikasleen jokoa izango dira. HHkoen ikuskizunaz gozatzeko aukera gero, baita ikasleek egindako lanak ezagutzeko ere. Eta arratsaldean, musika. Tartean, bazkaria antolatu dute. Astelehenaz goerotik, otordurako txartelak salgai daude Udarregiko idazkaritzan. Bazkaritarako bi menu prestatuko dituzte; bat helduentzat, bestea haurrentzat. Helduena, 15 eurotan eta menua hauxe izango da: paella, kokotsuhala, postrea, kafea eta kopa, edariak eta ogia. Haurrentzako menua berriz, 7 eurotan jarriko dute: makarroiak, solomoa eta chips patatak, postrea, edaria eta ogia.

Ikastola Eguneko bazkarian berrikuntzak txertatu dituzte antolatzaileek, Udarregiko web orritik berri eman dutenez. "Aurten berrikuntza bezala eta giro alai eta hurbilago bat sortzeko gurasoek prestatuko dute bazkaria, horretarako, zuen lagun-



Ekainaren 2an goiz partean ikuskizun ezberdinak egingo dira.

## IKASTOLAREN EGUNEAN

**"Gurasoek prestatuko dute bazkaria, eta jende gehiago beharko da lan-talde ezberdinetan"**

tza-eskaera egiten da hainbat lan-taldeetan parte hartzeko: garbiketa,

muntaketa, janari prestatuaketa, janari banaketa... Animatu zaitzete!", egin dute deia ikastolatik.

## IMANOL URBIETA KANTU-EGILEA OMENDUKO DUTE

Mende laurdena beteko du aurten, Ikastola Egunean Haur Hezkuntza-koek burutu ohi duten ikuskizunak.

Eta Udarregitik diotenez, herrian antolatzen diren ekitaldi klasikoaren artean dago jada. Aurtengoa berezia izango da, Imanol Urbieta omenduko baitute. "Garrantzia handia eman dio Udarregi Ikastolak Imanolen musika pedagogiari eta beti saiatu da musika heziketa ildo horretatik bideratzen", adierazi dute Udarregitik.

Beraz, antolatzaileen esanetan, "zer hobeto omenaldia haurrek eskaintzea baino?". 25. urteurreneko ikuskizuna, ekainaren 2an, 12:00etatik aurrera, Oiar-do Kiroldegian.

## BURUHANDIEN ERAKUSKETA, BERTAN BEHERA

Ikastola Egunaren bezperatarako ere ekitaldi gehiago iragarri ditu Udarregik. Tartean, buruhandien erakusketa bat ere ireki asmo zuten. Baina Hitz Ahotik berri eman dutenez, kartoizko buruhandiak egiteko tailerra bertan behera utzi behar izan dute, jende faltagatik.

## Liburutruk ekimenean parte hartzeko deia

**I**kastolako liburuak berrerabiltzeko Liburutruk ekimena antolatu zuten lehen aldiz duela bi urte, Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak. Aurten ere, parte hartzera animatzen dute, dirua aurreztu, berrerabilerak paper kontsumoa eta zaborra murriztu, eta gainera, "gure seme-alaben heziketa hobetzeko" balio baitu. "Zenbait balore garatzen lagunduko diegu: besteekiko elkartasuna, guztion gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua", adierazi dute Hitz Ahotik, udarregi.com web orritik.

### Bilera, maiatzaren 16an

Liburutruk ekimenak gainera, erosotasuna eskaintzen du, "ikastolan jasotzen dira liburu guztiak eta lan-

koadernoak (ingelesekoa EZ)", ohar-tarazten dute guraso elkartetik. Liburutruk ekimen honi buruzko argibide gehiago jasotzeko, bilera deitu du Hitz Aho ostegun honetarako, maiatzaren 16rako, 18:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

### Funtzionamendua

- 1- LH 5etik aurrera ezarriko da sistema hau.
- 2- Ingeleseko liburuak EZ dira sartzeko sistema honetan, bakoitzak bereak eskuratu beharko ditu.
- 3- LAN KOADERNOAK ere Liburutruk bidez erosiko dira. Irailean liburu guztiak ikastolan jasotzen dira.
- 4- Izena ematerakoan fidantza bat ordaintzen da (gero deskontatuko da).
- 5- Ikasturteko azken egunean parte hartuko dutenek berrerabiliko diren liburuak bere ikasgelan utziko dituz-


te (lan koadernoak ez eta LH5ekoek ez daukate ezer uzteko).

6- Lan-taldeak liburuak aztertuko ditu, liburuaren inbentarioa, behar diren liburuaren eskaera, liburu-sortak eta banaketak egingo ditu.

7- Uztailean ikasle bakoitzari gutun bat bidaliko zaio jakiteko zenbat ordaindu behar duen.

8- Irailean gutunean jarriko den datetan liburuak ikastolan jasoko dira, ordainagiria aurkeztuz.

9- Ordainketa modua: alde bate-tik, kuota finko bat dago eta, beste aldetik, ikasle bakoitzaren lan koadernoaren ordainketa. 2011-12. ikasturtean: kuota finkoa 32,00 euro (hori da berriro erabiltzen diren liburuaren ordainketarako kuota). Ikasle bakoitzak bere lan-koadernoak ordaindu zituen. 2012-13. ikasturtean: urte honetan 2 tal-



Argibide gehiago emango dira maiatzaren 16ko bileran.

de mota daude, aurreko urtetakoak eta parte hartzaile berriak. Berriek ordaintzen dute aurreko kuota (32,00 euro) gehi kuota berria (21,00 euro). Aurreko urtekoek kuota berria (21,00 euro) bakarrik. Urte honetan ere bakoitzak bere lan-koadernoak ordaindu ditu.

## Uretako Sorospen ikastaroa antolatu du DYAk

**I**kastaroa asteburuetan eskainiko da, ekaineko larunbat eta igande gutzietan (ekainaren 1ean hasi 23ra bitartean). Larunbatetan, goizeko 9:00etatik 13:00era eta arratsaldeko 15:00etatik 19:00era; eta igandetan, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Usurbilgo Oiarde Kiroldegian eta Etumeta AEK Euskaltegian emango dira ikastaroko eskolak.

“Uretan aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun ikasiko dugu”, adierazi digute DYAtik. “Ezagupen oso arruntak irakatsiko dira, baina oso lagungarriak izango zaizkigunak”.



**Ikastaroak hilabete iraungo du eta ekainaren 1ean hasiko da.**

Teoria eta praktika uztartuz, oso modu erosoan eta atseginean eskainiko da ikastaroa.

Hori bai, beharrezkoa da

aurrez lehen sorospen eta sorosle ikastaroa egina izatea.

Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du.

Matrikularen prezioa, ikastarorako txostena barne, 200 eurokoa izango da. Hori bai, kontuan izan plaza kopurua mugatua izango dela, ematen den hezkuntzaren kalitatea bermatzearen.

Izena emateko edo jarduera honen inguruko informazio gehiago jasotzeko, honako telefono zenbakian jasoko duzue informazio gehiago: 943 46 46 22.

### Usurbilgo Toponimia, sarean

Usurbilgo leku izenen azterlana sarean dago jada, Usurbilgo Udalak eta lametza enpresak gauzatu duten egitasmoari esker. Helbidea hauxe duzue: [toponomia.usurbil.net](http://toponomia.usurbil.net). Usurbilgo Udalaren web orrialdean, [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net) gunean, aipatu atari berri horretarako lotura zuzena duzue. Web orrialde berria, Luis Del Barriok, Mari Karmen Etxabek, Joxe Jabier Furundarenak eta Luix Mari Zalduak 1989an egin zuten Usurbilgo Toponimia lanean oinarritzen da.

Web orria halere, osatzeke dago. Batetik, toponimia mapako izenak normalizatzeko lanean dabil Udala. Jada, bostehunetik gora leku izen normalizatu dituzte.

## Bost atxilotu lapurretetatik

**G**uztira bost lagun atxilotu zituen Ertzaintzak iragan astean, ustez Urbil merkatal guneko zenbait saltokietan eta Zubietako hipodromoko instalakuntzetan lapurretan aritu edo saiatzeagatik. Maiatzaren 7an, arratsaldeko 13:00ak aldera gertatu zen, hipodromoko ustezko lapurreta saiakera. Herritar batek Ertzaintzara deitu zuen, ustez hipodromoko instalakuntzetan lapurtzen ari zirela berri emanez. Antza, bi lagun hipodromoko biltegira sartzen saiatu

ziren, eta poliziaren sirena hotsak entzunda, kamioi batean ihes egiten ahalegindu. Ertzaintzak gertaera lekura gerturatuak ziren ordurako, eta kamioia geldiarazi zuten. Bi lagunok identifikatu zituen, eta kamioia miatu zuten. Ibilgailua txatarraz betea eta hipodromoko makinaria gunera sartzeko atea behartua zegoela ohartu ziren. Horregatik, aipaturiko bi lagunok, 35 urteko gizon bat eta adin txikiko 15 urteko gizon bat atxilotu zituen Ertzaintzak, ondarearen aurka delitua egotzita. Gerora,

adin txikikoa aske geratu eta gurasoen esku utzi zuten. 35 urteko gizon bat berriz, epaileen esku.

### LAPURRETAK URBILEN

Biharamunean, maiatzaren 8an bestalde, 30, 32 eta 35 urteko beste hiru gizon bat atxilotu zituen Ertzaintzak. Urbil merkatal guneko saltoki desberdinetako jantziak lapurtu izana egotzi zaie hiru lagun hauei. Guztia, iragan asteazken arratsaldeko 20:00ak aldera gertatu omen zen. Antza, Urbileko denda desberdinetako

produktuak lapurtu omen zizuten eta gero, kotxean merkatal gunetik alde egitea lortu. Ertzaintzak ordea, Belartzako errotonda inguruetan susmagarria zen autoa gerarazi zuen. Barruan, gerora atxiloturiko hiru lagunak zihoazen, eta haiekin, Urbileko saltoki desberdinetako hainbat arropa, baita denda hauetako alarmak desaktibatzeko lanabesak ere. Ostutako materialaren kostuak, 900 euroko muga gainditzen zuten. Atxilotuak Hernaniko ertzain etxera eraman zituzten. Epaileen esku utzi dituzte.

**ARGILAN**  
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
 629 272 859 eta 943 36 13 80  
 BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

**JE JON ELORZA**  
 IGELTSERITZA  
 OROKORRA  
 Obrak eta erreformak  
 661 804 688  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



# Usurbil Cup abian ostiraletik



Ekainaren 15era arte luzatuko da Usurbil FTk antolatu duen txapelketa.

**3** 77 neska-mutil, 37 taldeetan banatuta. Guztiek prest behar dute honez gero. Ostiral honetan, maiatzaren 17an hastekoa baita 2013ko Usurbil Cup. Ekainaren 15era arte luzatuko da Usurbil FT-k antolaturiko txapelketa. Mai-laz maila, taldeen arteko partidak jokatu dira lehen fasean, herriko gune desberdinetan.

Frontoian jokatu diren finalen aurretik, "maila bakoitzeko lehenengo 4 sailkatuek finalerdiak jokatu dituzte eta hauen irabazleek, finalak. Mini-

benjaminetan izan ezik. Iaz bezala, maila honetan ez dira emaitzak jasoko eta parte-hartzea izango da antolatzaileek sustatuko dugun bakarra. Pasa den urteko esperientziarekin gustura geratu baidakinen".

Antolatzaileak asteartean, taldeetako entrenatzaileekin biltzekoak ziren Potxoenean. Bertara agertu izan ez zutenek, ekimen honi buruzko argibide gehiagoren berri jaso dezakete, futusurbil@yahoo.es helbidera idatzita.

## Hurbilagon erosteagatik saritua

**A**na Mediavilla Perez herritarrak eguzkitarako betaurrekoak irabazi ditu, Usurbil Optikaren eskutik Hurbilago elkar-teko dendetan burutu berri den zozketan. Argazkian duzue, optikako langile Ana Perezekin. Txalaka saltokian egindako erosketengatik irabazi ditu eguzkitako betaurrekoak.



Ana Mediavillak irabazi ditu eguzkitarako betaurrekoak. Ana Perezekin ageri da.

## Usurbil FT zozketan saritua

**8** 16 errifa zenbakia zuen argazkiko herritarrak eta horri esker Bruñoren mariskada eder bat irabazi du Usurbil FT-k antolatu zuen zozketan.



816 zenbakiarekin irabazi du saria.

## Infantilak Gipuzkoako Eskubaloï Txapelketako finalera heldu dira

Iragarri bezala Usurbilen ez, azkenean Zumarragako Ispilla Kiroldegian jokatu dituzte azken neurketa hauek. Larunbat goiz honetan biak, ordu hauetan.

### 10:30 Infantil mutilak (finala):

Melfun Eibar Eskubaloïa-Udarregi Usurbil Tokia: Zumarragako Ispilla Kiroldegia.

### 12:00 Infantil neskak (finala):

Elgoibarko Sanlo EKT-Udarregi C Usurbil Tokia: Zumarragako Ispilla Kiroldegia.

## Eskubaloï partidak

### Maiatzak 17, ostirala, Oiardon

20:00 Jubenil mutilak:

Usurbil K.E.-Amenabar Zarautz

### Maiatzak 18, larunbata, Oiardon

9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Urnieta 5A

9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-La Salle Berrozpe 5A

10:30 Infantil neskak:

Udarregi A Usurbil-Egia Bera Bera B

11:30 Alebin neskek:

Udarregi 6B-Txingudi 6

11:30 Alebin neskek:

Udarregi 6-Laskorain ikastola

12:30 Infantil neskek:

Udarregi B Usurbil-Bidasoa Irun

16:30 Kadete neskek:

Usurbil K.E.-Pulpo

18:00 Senior mutilak: KOPA NAZIONALA.

Atez Ate Usurbil (2. N)-Eibar (1. N)

### Maiatzak 19, igandea

9:15 Kadete neskek, Oiarde kiroldegian

Gipuzkoako selekzioaren kontzentrazioa.

## Selekzioarekin

### Maiatzak 19 eta 26

10:00-12:00 Kadete mutilak, Donostiako Bidebieta kiroldegian: Xabat Beloki Segurola eta Mikel Atxaga Arruti.

## Pilota partidak

### Maiatzak 18 larunbata

### Aginagan, goizeko 11:00etan

Josu Arruti-Jon Olaizola

Labaien aita semeak

Iñaki Alzuri-Iban Arruti

Igor Alkorta- Eneko Arregi

Unai Loidi- Josu Errekondo

Xabier Murua-Xabier Errasti

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000e. 617 972 350.

Atiko batsalgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxebizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpian. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxebizitza salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukaldea eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ede-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipinko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

rrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukaldea eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Kaxkoan pisu eguzkitsua alokatzen da, 2 logela. Igogailuarekin, berogailuarekin. 635205694

Pisu bat alokatzen da kaxkoan, 3 logela, sala, sukaldea, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821 - 657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egon-

gela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeta egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

## MOTORRA

## salmenta,

## garajeak

Seat Ibiza 1.4Tdi 80 zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailera eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiarrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko moduko 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramuntan. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikaske-

tak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldean 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematikako klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko,



**Zorionak!** Maiatzaren 18an 5 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partez.



**Zorionak Eire!** Maiatzaren 18an 2 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



**Zorionak Malen!** Maiatzaren 13an bete dituzu 11 urte. Oso ondo ospatu genuen, ederra txokolata prestatu zenutena. Muxu handi bat eta Zorionak.



**Zorionak Jon!** San Ixidro egunean hiru urteak egin dituzu. Muxu pottolo bat zure familien partez.



**Zorionak Naiara!** San Ixidro egunean hiru urteak egin dituzu. Muxu pottolo bat zure familien partez.



**Aupa Oier!** Maiatzaren 20an 8 egiten dituzu. Zorionak Aginagako eskolatik, lagunaren eta andereinoen partetik!! Muxu bat.



morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adinoko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak

zaintzeko, klase partikularrak emateko. Esperientzia. 652712099.

### Lan eskaintzak

Emakume euskalduna eta usurbildarra behar dugu astelehenerik ostiralera, 12:30-14:30 artean eta astelehen eta asteazkenetan, 16:30-18:00 artean, bi haur zaintzeko irailetik aurrera. Gabonetan, Aste Santutan, uztailean eta abuztuan izan ezik. 635 755 666

Usurbil aldean komertzialak

behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

### BESTELAKOAK

Frantsesezko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpeteta eta tronboi jole bilagabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea,

grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagariak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekuak salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea .....	943 376 650
Atez ateko bulegoa .....	900 776 776	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	Eusko Tren .....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea .....	697 919 516	LurraldeBus .....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Anbulategia .....	943 362 013
Bake Epaitzea .....	943 372 336	Oa botika .....	943 376 076
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	Iturralde botika .....	943 363 395
Haur Eskola .....	943 374 061	DYA .....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Emergentziak .....	112
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea .....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
Oiardo Kirolegia .....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	Banco Popular Español .....	943 370 411
Kalezar Egunezko Zentroa .....	943 365 249	BBVA .....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza .....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia .....	943 361 239	Telefonica .....	1004
NOAUA! Kultur Elkarte .....	943 360 321	Euskatel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak maiatzak 16-maiatzak 26

<b>Osteguna 16</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Ostirala 17</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
<b>Larunbata 18</b>	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
<b>Igandea 19</b>	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
<b>Astelehena 20</b>	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
<b>Astearte 21</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Asteazkena 22</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

<b>Osteguna 23</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
<b>Ostirala 24</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
<b>Larunbata 25</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
<b>Igandea 26</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022  
22:00 - 09:00



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Andoni Errazkin

# Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

663 08 76 71 • 943 24 34 65



Okindegia-Gozotegia

# LABE-GOXO

# Agenda maiatza

## 17 ostirala

- **Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa Sutegin.** Maiatzak 16-17: 18:00-20:00. Maiatzak 18-19: 10:00-14:00.

## 18 larunbata

- **Ate irekien eguna, Lanbide Eskolan.** 11:00.
- **"Plazara" Herrirak deituriko elkarretaratzea,** 12:00etan Dema-plazan. Kamiseta urdinekin agertzeko deia.
- **Sariaaundi baserrira bisita gidatua.** 17:00etan, Aginagako Sariaaundi baserrian.

## 19 igandea

- **Sagardo Eguna.** Informazio osoa 'Sagardo Eguna 2013'-ko gehigarri berezian.

## Plazara ekimena deitu du Herrirak, eta 200 herrietan egingo da

**G**iza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira. Lelo horrekin bete nahi ditu Herrira mugimenduak Euskal Herri osoko plazak. Dagoeneko, 200 herritan baino gehiagotan antolatu dituzte ekitaldiak maiatzaren 18rako, eta hainbat eragileren babesa jaso dute.

Aurreko astean, zortzi alderdi politiko batu ziren Herriraren ekimenara. Euskal presoek aurkako "salbuespen neurriak" bertan behera uzteko eskatu zuten agerraldi batean Sortuk, Eusko Alkartasunak, Aralarrek, Ezker Batua-Berdeek, Alternatibak, Gorripideak, Eusko Ekintzak eta Euskal Herriko Komunistek.

Bide horretan, espetxe politika aldatzeko eskatu diete Frantziari eta Espainiari. "Garaia da pertsona guztien oinarritzko giza eskubideak erres-



Larunbat honetan, 12:00etan Dema-plazan.

petatzeko", esan zuen denek izenean Ainhoa Beolak. Konponbide jokaleku baterako urrats gisa, premiazkotzat jo dute gaitz larriak dituzten hamabost presoak aske uztea, sakabanaketa amaitzea eta 197/2006 doktrina bertan behera uztea. Hain zuzen, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak ere doktrina hori indargabetzeko agindu zion, iazko uztailean, Espainiari.

### Datozenak

#### Datorren larunbatean, maiatzak 25, kantu-jira

Hilabeteko azken larunbatean atera ohi da kalera Usurbilgo Kantu Taldea. Euskarazko kantuak abesteko gogoz dagoen oro dago gonbidaturik. Ohi bezala, Mikel Laboa plakatik abiatuko dira, arratsaldeko 19:00etan.

#### Azkaiter Pelox Band taldearen kontzertua Artzabal

Olatu Talkaren harira, Talkalve zirkloa jarri da martxan. Zuzeneko musika zirkuitu honen bitartez, 100 kontzertu inguru eskainiko dira. Horietako bat, datorren larunbatean, maiatzak 25, Artzabal tabernan. Kontzertua 20:00etan hasiko da.



Azkaiter Pelox Band taldea.

### Baratze ekologikoaren laborantzarako ikastaroa

Familiei zuzendua, ikastaroa praktikoa izango da. Ekainaren 1ean eta 8an egingo da, goizeko 9:30etik 13:30era. Gehienez 12 famili hartuko dira aintzat, alegia, plaza kopurua mugatua dela. Prezioa, 20 euro. Izen-ematea: 646 449 358 / usurbiltzen@gmail.com

### Usurbilgo sagarkien dastaketa

'I. Sagastiak Loretan' ekimenaren baitan antolatu da sagarkien dastaketa. Datorren ostegunean, maiatzak 23, Guillermo Castaños enologoa Aitzaga elkartera hurbilduko da ikastaro modukoa eskaintzera. 19:30ean hasiko da dastaketa. Sarrera, doan.

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78

**Otar-Goxo**  
E l i k a g a i a k  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**ESKAIOLA eta PLADUR**  
Joxean Elorza  
699426042  
USURBIL



aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera



# udajolas

2013

udaleku irekiak

**Usurbilen errolatutako 4-12 urte (HH3-LH6)** bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago.

**Uztailaren 3tik 30era**  
**Ordutegia: 09:30-13:30**

**Gehienezko plaza kopurua 130 umekoa** izango da. 130 ume baino gehiago apuntatuko balira, **zozketa egingo litzateke maiatzaren 27an, arratsaldeko 18:30etan Potxoenean eta ondoren** onartu eta baztertuen zerrenda Noaua!ko bulegoan jarriko litzateke.

Izen emateko epea: **maiatzaren 21etik 27ra** (biak barne), 10:00-11:00 eta 16:00etatik 18:00etara, Noaua!ko bulegoan.

Izen ematerakoan, izen emate orria ekarri behar da.

Behin plaza ziurtatua dagoenean, **ekaianaren 4a baino lehenago egingo da diru-sarrera.** Data hori pasata egiten diren ordainketak ez dira onartuko eta plaza galduko da. **Ordainagiriaren kopia Noaua!ra eraman behar da.**

Ordainketa EUSKADIKO KUTXako kontu honetan egin eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:  
3035 0140 34 1400025811

**Kuota: 79€**

**Famili ugaria: 63€** (txartelaren kopia ekarri behar da)



**noaua**



**Usurbil**  
osasuna atez ate



# TXOTX !!!



**OTSUA-ENEA**  
SAGARDOTEGIA

**943 55 68 94**

Osinaga bailara, HERNANI



**URDAIRTA**



**Sagardotegia**  
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

**LARRE-GAIN**  
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 5era  
TXOTX GARAIA  
Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



**SAIZAR**  
Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • **USURBIL** • Tel. **943 37 39 95**  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

**SAGARDOTEGIA**  
aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
TXOTXETIK!



Tfno-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
[info@aginagasagardotegia.com](mailto:info@aginagasagardotegia.com)  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



*%100 bertako sagarra*

**Tel: 943 365 031**

Santuenea